

1955-VII-29

Donostian, mila bederatzireun eta berrogetaamaboskarren urteko Uztailaren ogetabederatzian, Ekauta-jauregian, Euskaltzaindiak gaurko geitutako batzarra egi-ten dau. Maipuru Etxaide jauna. Batzarkide: Lekuona ta Oleaga euskaltzainak eta Lojendio ta Arrue euskaltzain ordeak.

Villasante jaunak ezin etorria adirazo dau.

Araudizko otoitza egin eta, azkenengo batzarbien agiriak irakurriak izan dira eta aobatez onetsi dira.

Gero aitatu dira, ildako Azkue jaunaren lantzo batzuk, beste gutun batzuen artean agertu diranak. Lanok onexek dira: "Kempis euskeratua; Algunas curiosidades lingüísticas; Cuestiones gramaticales; Flexionario del verbo".

Poz pozik ikusi ta aztertu dira eurok.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.